

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pilar Lizarralde Mitxelena

*Donostia,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea



Biografia



Gurasoak donostiarrak zituen eta bera han bizi izan zen harik eta 31 urterekin Hernanira ezkondu zen arte. Ibaetako Ekorraundi baserrian jaio zen eta merkaturako joera izaten zuten zeukatena saltzera. Fruta arbolek estimazio handia izaten zuten orduan eta Gabonetan goroldioa era ederki saltzen zuten Donostiako Artzain Onaren katedralaren aurrean jarrita. Neguan josten ikasten ere aritzen zen. Igarako baserri gehienei ez bezala, haiei Igeldoko parrokia tokatzen zitzairen, eta hango erromeriak gogoan zituen. [Jose Antonio Barandiaran](#) senarrarekin ageri da bideoan.

Zintak

DON-124

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhua
- **Data:** 2010-05-26
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Ibaetako eskola eta Igeldoko bezperak

- **Erref:** DON-124/002
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:00:53. **Bukatu:** 00:01:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Igarako eskola Pilarren etxetik bost minutura zegoen. Neskak eta mutilak aparte ikasten zuten. Pilar bizi zen Ibaetako partea Igeldori zegokion, eta jaietan bezperetara Igeldora joaten ziren. Gero, filarmonika izaten zen, eta han pasatzen zuten arratsaldea.

2. Festarik festa

- **Erref:** DON-124/003
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:01:47. **Bukatu:** 00:03:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gaztetako ibilerak. Auzoetako eta inguruko herrietako festetara joan ohi ziren. Aingeru guardako jaiak, San Pedroak... San Estebanetan Usurbilera joateko ohitura zuten. Dantza soltean eta baltsean egiten zuten.

3. Baserriko lanak

- **Erref:** DON-124/004
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:03:58. **Bukatu:** 00:04:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Igande eguardira arte baserrian lana izaten zen, berdura biltzen. Astean zehar San Martingo azokan saltzen zuten berdura. 16:30ak aldera ateratzen ziren kalera.

4. Fruta-arbolak zituzten etxean

- **Erref:** DON-124/005
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:04:31. **Bukatu:** 00:05:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>San Martingo azokan berdura, fruta eta esnea saltzen zuten. Udareak, melokotoiak, gereziak, sagarrak... biltzen zituzten baserrian.</p>

5. Neguko arratsaldetan, jostera

- **Erref:** DON-124/006
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:05:24. **Bukatu:** 00:06:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Negu partean, baratzeko lan gutxiago izaten zen baserrian, eta eguardira arte egoten zen plazan. Arratsaldetan, berriz, Antiguara joaten zen josten ikastera. Etxekoentzako arropak egin ohi zituen Pilarrek.</p>

6. Baserriko tresnak

- **Erref:** DON-124/008
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:10:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Baratzeko eta soroko lanetarako zer tresna erabiltzen ziren lehen: goldea, area, karramarroa, alperra, besarea... Lur zokorrak egurrezko mazoarekin jotzen ziren puskatzeko. Geldea tiratzeko abereak erabiltzen ziren. Gero hasi ziren lurra bueltatzeko makinak. Makina horrek lurra "gozo" jartzen zuen.</p>

7. Errazionamendua eta estraperloa

- **Erref:** DON-124/013
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:15:05. **Bukatu:** 00:18:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ondorenean, baserritarrek San Martingo azokara eramandako jeneroagatik hainbesteko bat ordaindu behar izaten zuten. Zenbait baserritarrek babarrunak ezkututzen zituzten zerga horiek ez ordaintzeko. Ogia ere estraperlokoa izaten zen. Errazionamendua hiru klasetakoa izaten zen. Errazionamenduko ogia nolakoa izaten zen... Olio eta sakarina ere estraperlokoak izan ohi ziren.

8. Txerriaren edo oiloaren gantza

- **Erref:** DON-124/015
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:19:16. **Bukatu:** 00:20:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Olio falta zenean, txerriaren edo oiloaren gantza erabili ohi zen eltzeko jakian goxatzeko. Esnegaina ere "makina bat" jaten zen. Lehen dena aprobetxatzen zen.

9. Goroldioa, oso estimaua

- **Erref:** DON-124/016
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:20:05. **Bukatu:** 00:21:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Gaztainak, hurrak, intxaurrak, goroldioa... bildu ohi zituzten. Etxerako gehiegi izanez gero, saldu egiten zuten. Artzai Onaren katedraleko artzapezari esnea eman ohi zien Pilarren etxeok. Eguberrietan, otarra bete goroldio eramaten zien katedraleko jaiotzean jartzeko; trukean, turroia ematen zien.

10. Artzapezarekin jaunartzea egin

- **Erref:** DON-124/018
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:24:23. **Bukatu:** 00:26:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

Garai batean, zazpi urterekin komunio txikia egiten zen, eta 12 urterekin, berriz, komunio handia. Artzai Onaren katedraleko artzapezari esnea eman ohi zien Pilarren etxeok, eta, harekin harreman ona zutenez, Pilar, bere anaia eta lehengusu batek artzapezarekin egin zuten jaunartzea.

11. Dotrina eta Pazkoazkoa

- **Erref:** DON-124/019
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:26:47. **Bukatu:** 00:28:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Pazkoazkoa egiteko txartelak eskuratzeko, apaizak dotrina galdetzen zuen. Urtean behin egin beharreko jaunartzea izaten zen. Garizumako denboran, zerbait ordainduz gero, haragia jateko baimena ematen omen zuten.

12. Dotrina gaztelaniaz, mezak latinez

- **Erref:** DON-124/020
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:28:12. **Bukatu:** 00:30:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Elizaren indarra du hizpide. Eskolan ikasten zuten dotrina, gaztelaniaz. Galarazita zegoen eskolan euskaraz hitz egitea. Mezak latinez izaten ziren, baina sermoiak euskaraz izaten ziren. Garizuma garaian Igeldoko bikarioa Igara jaisten zen sermoiak eman eta arrosarioak errezatzerara.

13. Buruko zapia

- **Erref:** DON-124/022
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 00:31:09. **Bukatu:** 00:31:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Emakumeek burua "mantilarekin" estalita sartu behar izaten zuten elizara: "zerbait jarri beharra zeneukan buruan, bestela ez zeneukan jauna jartzerik".</p>

14. Mezara baraurik

- **Erref:** DON-124/025
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:33:40. **Bukatu:** 00:34:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Mezara baraurik joan behar izaten zen. Goizean goiz joaten ziren mezara. Antiguoko elizara 06:30erako joaten zen Pilar.

15. Elizaren eragina

- **Erref:** DON-124/027
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:34:43. **Bukatu:** 00:36:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Igande goizetan mezara joaten ziren; arratsaldetan, bezperak (arrosarioa eta funtzioa) izaten ziren. Kongregazio egunetako elizkizuna sakratua izaten zen. "Etxean iruditzen zitzaigun meza joaten ez baginen galduta geundela". Hileko lehendabiziko ostiralean jauna hartzera joan behar izaten zen.

16. Konfesioak

- **Erref:** DON-124/030
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:38:00. **Bukatu:** 00:38:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Konfesioei buruzko kontuak. Herrian bikarioa eta apaiz bat zeuden. Bikarioarengana inork ez zuen nahi izaten konfesatzera joaterik.

17. Kongregazioko zaindari

- **Erref:** DON-124/034
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:43:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak

Laburpena:

Pilar kongregazioko zaindaria izan zen. Elizan ez zen besteekin batera jartzen (aparteko tokia zuen), eta berari zegokion kongregazioko urteko kuota kobratzea. Berak zinta zuria eramaten zuen; besteek, urdina. Hiletetan zer ohitura zeuden aipatzen du; lutoa, hildakoaren etxera bazkaltzera joatea...

18. Hiletak

- **Erref:** DON-124/035
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:43:36. **Bukatu:** 00:46:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

"Primera, segunda eta terzerako hiletak izaten ziren". Hiletetan zer ohitura zeuden aipatzen du; hildakoa etxean edukitzen zen, lutoa, hildakoaren etxera bazkaltzera joatea, meza-dirua...

19. Prozesioak

- **Erref:** DON-124/040
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:57:06. **Bukatu:** 00:59:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Kalbarioak Garizuman egiten ziren. Prozesioak: San Isidro Egunean, Korputzetan, San Joanetan, Aste Santuan...

20. Artzai Onaren katedraleko prozesioa

- **Erref:** DON-124/042

- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:00:29. **Bukatu:** 01:01:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erligioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

Korputzetan eta Ostegun Santuan egiten ziren prozesioak. Pilarren izeba bat beste emakume batzuekin batera aritzen zen santuentzako arropak konpondu edota berriak egiten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com